



Usurbilgo Udala



## **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2015EKO ABENDUAREN 7AN EGUERDIKO 14:35EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

### **BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Alaitz Aizpurua Labaka eta Josune Estella Arranz

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi du:** Irene Garcia Palacios.

### **1.- 2015EKO AZAROAREN 30EKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek, 2015eko azaroaren 30eko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, Josune Estellaren abstentzioarekin eta gainontzekoekin aldeko botoarekin.

Alkatearen kasuan, interesatuarekiko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluko abstentzio kausa egonik, bigarren puntuan ez du eztabaidan parte hartu.

### **2.- JOSE ANTONIO SEGUROLA ARREGIRI, LANDALURREKO KATASTROKO 4. POLIGONOKO 219. PARTZELAN BETELANAREN AURRETIKO AZPIEGITURAK (SOILIK) EGITEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

JOSE ANTONIO SEGUROLA ARREGI jaunak aurkeztutako eskaera aztertu dut (Esp. Zenbakia: HZ.04/2010-0209). Bertan, landalurreko katastroko 4. poligonoko 219. partzelan betelana egiteko udal baimena eskatzen du.

Betelana 2010eko apirilean bisatutako Proiektu baten arabera burutu nahi da. Proiektuaren idazlea, Fermin Pinzolas Bidarre ingeniari agronomoa da.



Usurbilgo Udala



Proiektuaren azken informazio gehigarriaren arabera 86.163,16 m<sup>3</sup>-ko betelana gauzatu nahi da; hasieran baino 32.958 m<sup>3</sup> gutxiago. Horren baitan, 4.012 m<sup>2</sup> belardi eta larretarako 13.120 m<sup>2</sup> lortuko lirateke.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritzak ez du txostenik eman, nahiz eta 2012ko maiatzaren 7an halaxe eskatu.

Ur agenziak aldeko txostena eman zuen 2010eko azaroaren 5ean. Hitzez hitz honela dio txostenak:

**Erref: INF INTER 028/2010**

**ASUNTO: INFORME SOBRE EL PROYECTO DE RELLENO DE TIERRAS PARA ACONDICIONAMIENTO DEL TERRENO EN ZONA DE POLICÍA DE CAUCES DE LA MARGEN IZQUIERDA DEL RÍO ORIA Y ZONA DE POLICÍA DE LA MARGEN DERECHA DE UNA REGATA AFLUENTE AL ORIA EN LA PARCELA 291 DEL POLÍGONO 4 DE URDAIAGA, T.M. DE USUSBIL (GIPUZKOA)**

#### **SOLICITUD DE INFORME Y ANTECEDENTES**

Con fecha 22 de junio de 2010 tuvo entrada en la Oficina de las cuencas cantábricas orientales de la Agencia Vasca del Agua la solicitud de informe del Ayuntamiento de Usurbil sobre el proyecto de referencia.

Previamente, en enero de 2006 tuvo entrada en la Oficina Territorial la "Consulta previa para la instalación de un relleno de tierras en el T/M de Usurbir proyecto suscrito por la ingeniero agrónomo Mónica Pedreira para la empresa MOGILUR MAKINAK.



Usurbilgo Udala



## **ANÁLISIS DE LA DOCUMENTACIÓN PRESENTADA**

La documentación presentada consta de la memoria y planos del proyecto de relleno suscrito en marzo de 2010 por el ingeniero agrónomo Fermín Pinzolas Bidarre, de la Ingeniería y Consultoría LAIATEK, S.L., y está visada por el Colegio Oficial de Ingenieros Agrónomos de Aragón, Navarra y País Vasco en abril de 2010.

La obra proyecta el relleno de una pequeña vaguada en zona de policía de la margen izquierda del río Oria en una superficie aproximada de 18000 m<sup>2</sup>, con una altura máxima de 45 m, elevando la cota actual hasta los 55 m, y un volumen máximo de aproximadamente 120000 m<sup>3</sup>.

El acceso de la maquinaria al lugar del relleno se realizará desde la red de viales rurales, comenzando el relleno por tongadas de un espesor máximo de 60 cm desde la parte baja de la vaguada y progresando hacia arriba. Las tongadas serán extendidas por máquinas retroexcavadoras y un bulldózer, compactando adecuadamente las capas de relleno aportadas. Una vez concluida la fase de relleno, se extenderá la tierra vegetal, previamente retirada y acopiada en las inmediaciones y el lugar será aprovechado como manzanal y pradera.

Los cálculos hidrológicos y hidráulicos han sido realizados según los criterios establecidos en la orden de 14 de mayo de 1990, por la que se aprueba la Instrucción de carreteras 5.2 I.C. "Drenaje Superficial". No se prevén

El autor de la memoria del proyecto, el Ingeniero Agrónomo Fermín Pinzolas Bidarre será el responsable técnico del relleno.

Se calcula que la duración de las obras sea de aproximadamente cuatro años.

## **CONSIDERACIONES**

El área donde se proyecta realizar el relleno se situa en zona de policía de la margen izquierda del río Oria entre el P.K. 13,147 y el P.K. 13,272 . Las partes más próximas del relleno a los cauces se sitúan a 15 m del río Oria y 25 m de la regata afluente al río Oria.

Este tramo del río Oria está clasificado como de nivel VI (C>600 km<sup>2</sup>) según la componente hidráulica y la margen izquierda del río está clasificada como margen en ámbito rural según la componente urbanística. La regata afluente no está clasificada.

El Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV establece que en las márgenes consideradas según la componente urbanística como Márgenes en Ambito Rural se respetará obligatoriamente un retiro mínimo a la línea de deslinde de cauce público de 50 m para los tramos de río con cuenca afluente mayor de 100 km<sup>2</sup>. Estos retiros se aplicarán para cualquier intervención de alteración del terreno natural, salvo las relativas a las labores agroforestales.

Las actuaciones que se proyectan se enmarcan dentro de las labores agroforestales, por lo que el relleno cumple el retiro mínimo de 5 m. a los



Usurbilgo Udala



cauces públicos más cercanos a la actuación.

Por otro lado, la zona donde se pretende llevar a cabo la actuación se sitúa en una zona cuyo basamento se compone de margas de color gris oscuro y fábrica esquistosa de edad Cretácico superior, con intercalaciones de calizas arenosas, que en conjunto presenta un coeficiente de infiltración del 15% - bajo. Ello proporciona una muy baja vulnerabilidad en referencia a los recursos hídricos subterráneos del lugar.

### CONCLUSIÓN

Por todo ello, se informa **FAVORABLEMENTE** el "*Proyecto de relleno de tierras para acondicionamiento del terreno para su aprovechamiento como manzana y pradera*" en zona de policía de cauces de la margen izquierda del río Oria y zona de policía de la margen derecha de una regata afluente al río Oria en la Parcela 291 del Polígono 4 de Urdaiaga, T/M de Usurbil (Gipuzkoa). No obstante, el promotor de las obras deberá controlar que las aguas de escorrentía que se produzcan durante las obras no transportan sólidos en suspensión que puedan enturbiar las aguas del río Oria. En ese caso, resultará necesario instalar sistemas de decantación y filtración de las aguas que prevengan el transporte de dichos arrastres hasta el río Oria.

Por último, se informa que el promotor de las obras deberá solicitar la autorización de las mismas en esta Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales de la Agencia Vasca del Agua.

Donostia-San Sebastián, a 5 de noviembre de 2010

Iñigo Auza Aldasoro

Gaimen eta emakida teknikaria/Técnico de autorizaciones y concesiones

Nekazaritza eta Ingurumen aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, ondoko txostena eman du:

IT\_2015\_11\_23

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate Jaunari**  
**OBRA HANDIAK**

**URDAIAGA 4. POLIGONOKO 219 PARTZELAN BETELANA EGITEKO**  
**UDAL BAIMENA**

---

KOKAPENA. Urdaiaga, 4. poligonoko 219. partzela  
ESKATZAILEA: Jose Antonio Segurola Arregi.  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2010-0209  
PROMOTOREA. Jose Antonio Segurola Arregi  
BETELANA BOLUMENA. 86163,16 m3  
HERRI BIDEEN ERABILERA. 768 m asfaltatu  
AURREKONTUA. Behin betikoa aurkezteke.

---

### 1.- AURREKARIAK



Usurbilgo Udala



- 2010/05/13 Excavaciones Zuaznabar, S.L.-k 119.121 m<sup>3</sup>ko betelana egiteko eskaera aurkezten du, aurrekontua 27.775,46 € da. baimena eskatzen du.
- 2010/07/19 an interesatuak, Ura eta biodibertsitate gaietan eskumena duten erakundeei txostena eskatu zien.
- 2010/11/10ean Ura agentziak ALDEKO txostena igortzen du. Biodibertsitate sailak ez du erantzuten. (isiltasuna positibotzat uler daiteke)
- Betelana egin nahi den eremua, lurzorua kutsa dezakeen jarduera izan duen lurzorua den argitzeko, Usurbilgo Udalak 2012ko maiatzaren 7an kontsulta igortzen du Eusko Jaurlaritzara, idatziz erantzunik ez da jasotzen baina ahozko komunikazio bidez ez dela kutsatutako egon litezkeen lurren inbentarioan sartzen jakinarazten zaio udalari.
- 2012ko abenduan aurkezturiko proiektuan, betelanaren dokumentazio gehigarria aurkezten da. Bertan hurrengo aldaketak nabarmentzen dira.
  - Promotore aldaketa. Hemendik aurrera lurraren jabea bera izango da, Jose Antonio Segurola Arregi.
  - Exekuzioa egingo duen enpresa. Construcciones Mariaezcurrena S.L.
  - Bolumentria gehikuntza. 119440 m<sup>3</sup>.
  - Oinezkoen pasabidea egingo da Santuenea eta betelanaren artean.
  - 14.5 inbentariatutako bide publikoa mantenduko da.
  - Estabilitateari dagokionez, 1,2 ko segurtasun koefizientea bermatzen da eta ez da inolako eskoilerarik aurreikusten.
- Ondoren, Mariaezcurrena enpresa desegin dela jakinda proiektuaren baimen eskaera bertan behera geratzen da.
- 2014ko urrian, lurraren jabea berriz ere Udalarekin harremanetan jartzen da, betelana exekutatuko lukeen enpresa duela jakinaraziz eta baimen eskaerari erantzuteko eskatuz.
- 2014ko urriak 10ean, nekazaritza eta ingurumen teknikariak baimen eskaeraren KONTRAKO txostena igortzen du landa erabilpena zailtzen dela argudiatuz.
- 2015eko urtarrilak 20an informazio gehigarria aurkezten du, interesatuak.
- Hainbat bileraren ostean 2015eko abuztuak 11an interesatuak berriz ere betelanaren informazio gehigarria aurkezten du.

## 2.- ERREFERENTZIAZKO ARAUDI ETA IRIZPIDEAK

- 49/2009 dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitatu eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- 3/98 otsailaren 28ko ingurumena babesteko Lege Orokorra.
- Udal Arau Subsidiarioak.

## 3.- AZTERKETA

Azken proiektuaren informazio gehigarriaren baitan. 86.163,16 m<sup>3</sup> ko betelana gauzatu nahi da. (32958 m<sup>3</sup> gutxiago). Horren baitan, 4.012 m<sup>2</sup> belardi eta 13.120 larretarako. Guztira nekazal jardueretarako erabilgarri izan daitekeen 17.132 m<sup>2</sup> lortuz. (Lehen 14,026).

Horretaz gain, lur beteketa ere txikiagoa izanik, paisaian eta landa eremuan hobeto egokituko da betelana.

Ondorioz, ALDEKO txostena igortzea proposatzen da, beti ere hurrengo baldintzekin.



Usurbilgo Udala



- **Uren polizi gunean obrak egiteko Kantauriar Konfederazio Hidrografikoko Presidenteak ematen duen obra baimena aurkeztu beharko da.**
- **Lur jabeak, betelanaren eguneratutako behin betiko aurrekontua aurkeztu beharko du.**
- **Lur jabeak dagokion bermea aurkeztu beharko du, betelan jarduera eta herri bideen erabilpenaren ondorioz.**
- **Betelana egiteko erabiliko diren hondeaketa-materialen aurreikusitako kantitate eta jatorria adierazi beharko da, epearekin batera.**

Betelan jarduera abian hasi aurretik, **betelana hasi aurretiko azpiegituren obra amaierako ziurtagiria aurkeztuko da.** Bertan, hurrengo atalak zehaztu beharko direlarik gutxienez:

- Betelanaren mugaketa.
- Betelan barruko bideen mugaketa.
- Metatutako lur begetalaren kokapena eta egokitzapena.
- Erruberak garbitzeko sistema.
- Betelanaren drainatze sistema.
- Kontrolerako arketa.

Udal zerbitzuek betelan azpiegituraren inspekzioa egingo dute, dagokion aldeko txostena beharrezkoa izango delarik betelan jarduera hasteko.

Betelana egiten den bitartean hurrengo neurriak zuzentzaileak beteko dira:

- Landare inbaditzaileen hedapenaren aurkako neurriak hartuko dira.
- Betelana, aurkeztutako proiektu teknikoaren ezarpenetara mugatuko da (exekuzio baldintzak, materialak, kudeaketa etab...). Obran zehar, funtsezko aldaketak suposatuko lituzkeen edozein aldaketa balego, Udalari jakinarazi beharko zaio.
- Betelanaren mugaketari dagokionez, momentu oro, betelan eremua itxita egongo da, eta bertara sarrera nagusitik soilik sartu ahal izango da. Lan eguna ez denean, betelaneko sarrera itxita egongo da.
- Betelanaren inguruko natur eremuari dagokionez, bertako landarediaren garbiketa, ahalik eta eremu urrienean egingo da.
- Lur eta uren babesari dagokionez, makinariak izan ditzaketen isurketak ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira, eta betelanaren isurketen kontrola egingo da.

Isurketen kontrolerako, hiruhilabetero, eta betelana gauzatzen ari den bitartean, ur isurketen jarraipena eta neurketa egingo da, emaitzak hilabeteko epean udalari heleraziko zaizkio.



Usurbilgo Udala



Gutxienez hurrengo parametroak neurtuko dira, ur isurketetan: PH, konduktibitatea, tenperatura, Guztizko esekidura solidoak,  $DBO_5$ , DQO,  $SO_4^{2-}$ ,  $CO_3H / CO_3^{2-}$ ,  $CA^{2+}$ , koipeak, emaria.

Analisiak laborategi homologatu baten bitartez egingo dira.

- Hauts emisioei dagokionez, betelana martxan dagoen bitartean, herri bideen eta inguruaren garbiketa lanak egingo dira. Horretarako, betelanera sartu-irten-ak egiten dituzten makinenzako garbiketa sistemak ezarriko dira.
- Kamioien joan etorrien inguruan. Bidearen gaitasunaren arabera trafikoa eta gehienezko karga erabiliko da. Inguruko eguneroko jarduerak oztopatu gabe.
- Errestaurazio eta paisai egokitzapenerako neurriei dagokionez, obren hasieran lur begetala leku aparte batean metatuko da, bere ezaugarriak mantenduz, betelanaren amaieran leheneratze paisajistikorako erabiliko delarik.
- Hondakinei dagokionez:
  - x Betelanaren gauzatze fase orotan sorturiko hondakinak, hondakin eta lurzoru kontaminatuei buruzko 22/2011 legearen arabera kudeatuko dira.
  - x 49/2009 dekretuak jaso bezala, betelanean lurzoru naturaletik hartutako **lur eta harkaitzak SOILIK** botako dira. (Agerreazpiko obretakoak)
  - x Ezingo da kutsatuak izan litezkeen lurrik edo %65 baino hezetasun haundiago duten lurrik bota.
  - x Botatuko lur eta harrien jarraipen estua egingo da, horretarako arduradun teknikoak betelaneko sarreraren jarraipena egingo du, gutxienez hurrengo informazioa jasoko delarik:
    - Isurketa data eta ordua.
    - Isurketa egiten duen ibilgailuaren matrikula.
    - Garraiolari enpresa.
    - Hondakin mota.
    - Hondakinaren jatorria.

Informazio hau, Udalak eskatzailearentzat internet bidez eskuragarri utziko duen artxibo digital batean jasoko da. Gehienez ere, astebeteko atzerapena izango du artxibo honek.

- Leheneratze lanei dagokionez, obra amaierako lanetan, konpostaren erabilera bultzatuko da.

Betelana bukatutakoan hurrengo baldintzak ezartzen dira.

- Landare inbaditzaileen kontrola egiten jarraituko da.
- Jarduera amaitutakoan, jarduera amaierako ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion arduradun teknikoak sinatuta.



Usurbilgo Udala



Ziurtagiria, Udalak onartu beharko du, dagokion ikuskapena egin ostean.

Usurbil, 2015eko irailaren 23a.

UDAL NEKAZAL ETA INGURUMEN TEKNIKARIA  
Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariaren txostena kontutan hartuz, Ur agentziak helarazitako txostena irakurri ondoren, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Josune Estellaren aldeko botoarekin, aho batez, honako erabakia hartu da:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** JOSE ANTONIO SEGUROLA ARREGI jaunari, landalurreko katastroko 4. poligonoko 219. partzelan betelanaren aurretiko azpiegiturak (soilik) egiteko udal baimena ematea.

**BIGARRENA:** Betelana egin AURRETIKO AZPIEGITURAK.

- Betelan jarduera abian jarri aurretik, **betelana hasi aurretiko azpiegituren obra amaierako ziurtagiria aurkeztuko da.** Bertan, hurrengo atalak zehaztu beharko direlarik gutxienez:
  - Betelanaren mugaketa.
  - Betelan barruko bideen mugaketa.
  - Metatutako lur begetalaren kokapena eta egokitzapena.
  - Erruberak garbitzeko sistema.
  - Betelanaren drainatze sistema.
  - Kontrolerako arketa.
- Udal zerbitzuek aurretiko azpiegituraren inspeksioa egingo dute, dagokion aldeko txostena beharrezkoa izango delarik dagokion betelan jarduera lizentzia emateko.

**HIRUGARRENA:** Betelan jarduera hasteko lizentzia eskaera egite orduan, ondokoak aurkeztuko dira:

- Uren polizi gunean obrak egiteko Kantauriar Konfederazio Hidrografikoko Presidenteak ematen duen obra baimena.
- Lur jabeak, betelanaren eguneratutako behin betiko aurrekontua.
- Lur jabeak dagokion bermea, betelan jarduera eta herri bideen erabilpenaren ondorioz.
- Betelana egiteko erabiliko diren hondeaketa-materialen aurreikusitako kantitate eta jatorria adierazi beharko da, epearekin batera.

**LAUGARRENA:** Dagokion Udal zerga ordainduko da.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.





Usurbilgo Udala



**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, eguerdiko 14:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**